Burnearen garrantzia Bortzirietan

Burdinaren lanak gure zonaldean eragin handia izan du bai izaeran eta bai bizimoduan ere.

Hiru elementu, burdin minerala, basoa eta erreka uztartzen saiatu ziren olagizonek. Burdin mineralak inguruko meategietatik ateratzen zituzten. Bertako minerala agortu ondoren

Bizkaiako meategietatik ekartzen zuten, itsasontziz Hondarribiraino edo Iruneraino eta handik Lesaka edo Berako nasetaraino. Lehorrean zaldiak edo idiek eramaten zuten laberaino. Basoetatik egurra lortzen zuten minerala labeetan berotzeko eta horrela zeharkako lanbide batzuk sortu ziren: ikazkinak, mandazainak, itzainak …

Olak, berriz, erreka bazterrean eraikitzen hasi ziren uraren indarrak hauspoak eta mailuak mugi ahal izateko. Oletan mota guztietako tresnak sortzen zituzten: goldeak, aitzurrak, igitaiak, aizkorak, kateak, armak, … garai hartan gauza gehienak burdinaz, egurrez eta larruz egiten baiziren.

Guzti hau erakusten duen "Burdinaren etxea" deritzona ireki berria dute Lesakako herrian. Bertan ikusgai harrapatuko dugu baita ere Pedro Lantzen obraren zati bat.

Gaur egun burdinarekin zer ikusia duten hainbat lantegi ditugu. Baita ere ofizioz eta afizioz burdinarekin lanean aritu eta ari diren hainbat gizon aurkitzen ditugu gure zonaldean.

Gaurko gure lana Berako Juan Ignazio Lantz, Totono Errandoneari eta Lesakako Pedro Lantzi, egindako elkarrizketak plazaratzea da. Bakoitzak burdinarekin duen lotura aipatuko dugu.

Totono

Afizioa soldaduskan piztu zitzaion, han asto eta zaldietaz arduratzen zelako eta lagun batek iltzeak eskatu zizkion behin gurutze bat egiteko, dio Totono beratarrak.

Gaur gure ikastolara Totono etorri da. Totono Berako gizon heldua da eta 64 urte ditu. Lesakan mekaniko lanetan aritua da baina bere afizioa soldaduskan piztu zitzaion, han asto eta zaldietaz arduratzen zelako eta lagun batek iltzeak eskatu zizkion behin gurutze bat egiteko. Horrela pixkanaka bere irudiak sortzen hasi zen.

Iltze eta burdin plakekin irudiak egiten ditu orain, horretarako erroak, txirringolak, latak, alanbreak, estainua, kobrea, xaflak eta pilak

erabiliz. Gainera, tresna hauetaz baliatzen da irudiak egiteko: soldatzaile moduko bat, mailua, alikateak, orrikak…

Alikateekin iltze puntak tolesten ditu gero urtzekoarekin elkartzeko. Horretarako, urtzeko makina gradu askotan jartzen da.
Gorputz bat egiteko 5 torloju behar izaten dituela esan digu: 2 beso, 2 hanka eta enborra, puntan burua duelarik.

Mila gauza interesgarri egiten ditu Totonok baina ez ditu saltzen, gorde edota oparitu baizik, eta honakoak dira sortzen dituen irudiak: Olentzero, loreak, pertsonak, zaldi gurdiak, dantzariak, trainerak, aizkolariak, musika talde bat, gitarra joleak, jaiotza, txalupa bat sardin latarekin, etxeak …

Lan hau erraza dela aipatu digu, zailena ideiak aurkitzea dela azalduz; horretarako irudimena erabili behar dela dio eta baita inguruan dagoen guztia behatu ere. Hau lortzen duenean marrazkia egiten du edo fotokopiak ateratzen ditu eredu bezala erabiltzeko. Ondoren, pintzelak hartu eta iltzeak beltzez edo grisez margotzen ditu, azken honekin itxura zaharkitua emateko.

LANTX AROZTEGIA

Bere lehenengo lana erratza pasatzea izan zen, lanbide honetan ere hagitz garrantzitsua baita txukuna izatea segurtasunagatik, dio Juan Ignazio Lantz beratarrak.

Juan Ignacio Lanz Berako arotza da. Gu bere lantegira hurbildu gara bere lanbidearen berri berak eman diezagun.

Juan Ignacio 14 urterekin hasi zen lanean, orain dela 30 urte baino lehenago. Bere aitarekin hasi zen lehen urratsak ikasten, izan ere, bai aita eta bai aitatxi, arotzak ziren. Juan Ignacioren birratatxia inguruko meatzetan ibilia zen iltzeak eta zizelak egiten. Beraz, arotzarena aspalditik datorren lanbidea da Lanz familian.

Bere lehenengo lana erratza pasatzea izan zen, lanbide honetan ere hagitz garrantzitsua baita txukuna izatea segurtasunagatik.

Bere aita eta aitatxiren garaian lana bertze modu batera antolatzen zuten. Aroztegian hiruzpalau arotz aritzen ziren. Batek mailu ttiki batekin txingudian kolpeak joaz erritmoa markatzen zuen. Bertze batek, berriz, landu nahi zuten burne lodia kontu egiten zuen. Hirugarren batek, burnezko mazarekin landu beharreko burneari kolpeak ematen zizkion. Modu honetan gurdien firrilak eta ardatzak, ferrak, iltzeak, karretilak... egiten zituzten. Hau da, lanerako beharrezkoak ziren tresnak eta lanabesak.

Aipatu garai haietan minerala menditik hartu eta gizon indartsuenek oletara eramaten zuten, bertako sutan sartu eta lingoteak egiteko.

Gaur egun, lana egiteko modua aunitz aldatu da Lanz aroztegian. Hasteko, Juan Ignacio bera bakarrik aritzen da lanean, gehienetan. Behar duen burnea ere kamioetan aroztegiraino ekartzen diote. Bertzalde, egiten dituen lanak etxeak edo zenbait txoko apaintzeko izaten dira. Hala nola, lanparak, eskulturak, aulkiak, ispiluak, erlojuak, mahaiak...

Juan Ignaciok hauxe erran zigun: **"Batzuetan jendeak hagitz garbi du zer nahi duen baina ez beti, eta horrelakoetan euren etxera joaten naiz, ikusten dut zein estiloko altzairuak eta dituzten. Horren arabera eurek eskatutako objetuaren diseinua eskuz egiten dut (ordenagailurik ez dut erabiltzen), zenbat diru kostako zaien erraten diet eta konforme baldin badaude lanean hasten naiz".** Burne mota bat baino gehiago daude: gozoa, gogorra, ...

Beratar arotz honek burne gozoarekin lana egiten du, beratzarekin, forma emateko hagitzez errazagoa delako.

Aukera ederra izan genuen lana nola egiten duen ikusteko, iltzeak, karakolak, zizela, arrain buztana eta burnea bihurritzen ikusi baigenuen.

Aipatutako objetuak egiteko prozesua hauxe izan zen: Ikatz begetalari su eman, haizea martxan paratu (lehengo garaietan hauspo handi batekin egiten zen) sua indartzeko, gero burnea sutan kontu gori-gori jarri arte. Burnea ongi berotua

dagoenean, tenazarekin edo berak zeraman larruzko mantalarekin, txingudian mailuarekin kolpatuz nahi den forma ematen zaio. Bukatzeko, uretan zenbait aldiz sartu eta atera ibili, burneak tenplea har dezan.

Lanbide honetan bertze gauzen artean garrantzitsua da ordena eta baita lanerako hartzen dugun postura ere. Ahal den guztietan gorputza tente edukitzea ahalik eta gutxien bortxatzeko.

Bere lantokian hainbat eta hainbat tresna ikusi genituen, batzuk ezagunak eta bertzeak, berriz, arrotzak zirenak. Hainbertze erreminta edo lanabesen artean bere obrak ikusteko aukera izan genuen. Horien artean bere aitatxik duela mende bat egin zuen lanpara eta berak horretan oinarrituz aurtengo negu guztia egiten pasa duen lanpara handi-handi bat. Azken hau, bere bertze lanak bezala, enkarguz egin du. Bere etxean ere hainbat eta hainbat altzairu ditu burnez eginak: apalak, ohatzeak, mahaiak, solairu bat...

Bitxikeri moduan aipatu zigun Juan Ignaziok **"arotzak erdi sorginak garela ere erraten dute, burnea gehiegi erretzen denean, honek hartzen dituen formak bereziak izaten baitira (deabrua, gurutzea)"**.

Eta bukatzeko, krisia sumatzen ote duen galdetu diogu. Berak ez omen du krisia somatzen, hori bai, berari lanak ematen dizkionak diru aunitz behar omen du .

Labiaga ikastolako ikasleak

PEDRO LANZ

"Orduan, zer izan behar genuen erraten ziguten eta kitto"

Betidanik gustatu izan al zaizu burdinarekin lan egitea ? Zergatik aukeratu zenuen material hau?
Bertzerik ez dut ezagutu. Orain, lehengo konturik ez da; izan ere, gaur egun zer nahi duzun izan galdetzen dizute gurasoek, baina gure garaian ez zen halakorik. Orduan, zer izan behar genuen erraten ziguten eta kitto. Ez genuen beste aukerarik. Aitak agindu eta nik egin.

Zer nolako tresnak erabiltzen dituzu lan hauek egiteko? Zein litzateke prozesua?
Beno, ezertan hasi aurretik, zer egin behar duzun pentsatu behar duzu. Hau hasieratik garbi izatea komeni da. Ondoren, ikatzaren bidez, sua egin eta burdina berotu. Burdina berotzean, bigundu egiten denez, nahi dugun forma eman ahalko diogu mailuren batekin kolpeak emanez (okerra egiten badugu, igitaia…). Azkenik, hozten utzi eta gogortu egingo da.

Burdinaren lanketari dagokionez, zer desberdintasun dago lehengo garaietatik gaur egunera?
Gaur egungo burdina lanerako hobea eta finagoa da. Izan ere, lehen egurrarekin egiten zen ikatza, baina gaur egun harriarekin. Gauzak honela, harrikatzak, garbiagoa izateaz gain, gehiago berotzen du, eta horrenbestez, gehiago biguntzen du burdina, lanerako malguago geldituz.

Oraindik jarraitzen al duzu burdinezko lanak egiten?
Bai, baina nire kabuz aritzen naiz. Izan ere, lehen jendeak eskatutakoa egiten nuen, hau da, bakoitzak lanerako behar zuena eskatzen zidan nik egiteko. Gaur egungo egoera, berriz, hagitz desberdina da. Gaur egun edonon ditugu burdinezko tresnak salgai, beraz, ez dago lehengo premiarik. Bestalde, orain gainera jubilatuta nagoenez, nahi dudan lana egiten dut, gogoaren arabera. Ez dut jendeari saltzeko egiten, nire gogoz baizik.

Nolakoa da jendearen ikusmina? Jende asko hurbiltzen al da Burdin-Etxera?
Bai, jende ugari hurbiltzen da jakinminez. Burdinaren langintza eta izaeraren berri jakin nahi izaten dute gehienek.

Zertan inspiratzen zara burdinezko lanak egitean? Nondik etortzen zaizkizu ideiak?
Zahartzean lo gutxi egiten denez, buruari buelta ugari ematen zaizkio ohatzean. Beraz, hantxe inspiratzen naiz eta hantxe etortzen zaizkit ideiak. Gero, biharamunean, gauza batzuekin oroitzen naiz, eta beste batzuekin ez.